

Olentzeroren oparia: euskara

Ziburuko kolegioan Olentzero gisa berezi batez ospatu dute. Beren lanean euskara erabiltzen duten pertsonalitate batzuek ikasleak bisitatu dituzte.

Olentzero ainitz etorri zitzaizkien atzo Ziburuko kolegioko ikasleei bisitan. Ohorezko oparia ekarri zieten. Ez hunkitzen zen opari bat, ez erosten zen bat, baizik eta bizitzen eta biziarazten den opari bat sendiarazi zieten. 2000. urterako euskara hedatu zuten kolegioan eskutaraka. Euskaraz bizi eta lan egin daitekeela frogatu zieten euskaraz ikasten ari diren haurrei Olentzero eskuzabalek.

Ellande Alfarok ez zien sinetsarazi Olentzero zela, ikazkina zela eta menditik heldu zela esan zien haurrei. Bere burua pilotari gisa aurkeztu zuelarik ziztuak txalo bihurtu ziren. «Pilotan ere euskaraz egin behar da eta euskaraz mintzo direnek pilotan jokatu» mezua zabaldu zien pilotari gazteak. Ikastolako pilotari gaien aurka jokatu zuen ondotik, pipa utzirik.

Olentzeroekin, nork bere bidea

Mutilak eta neskak bereixi ziren handik laster. Mutilak ezker paretaren alde batean pilotariei begiratzen zieten artean, neskek mutxikoak dantzatu zituzten, Patxi Perez dantzariaren laguntzarekin. «Euskara jalgia hadi dantzara», aldarrikatu zuen dantza irakasle honek.

Ikastolako azkaindarrak eskertu zituen bereziki. Euskaldun berri honek haiekin ikasi zuen euskara. «Eskertzen zaituztet, urtea bukatu ondoan euskaraz samurtzen ikasi baitut zuekin» aitortu zien. Haurren «debrukeriek» lagundu zuten urrats horren gainditzen.



BO B EDME

Harrera beroa egin zieten atzo haurrek euskararen oparia ekarri zuten Olentzeroei.

David Airek euskara egun guziz hedatzen du. Alabainan, Radio France Pays Basque irratiak euskarazko emankizuna aurkezten du. Hedabideen euskalduntzearen aldeko mezua zabaldu zien haurrei eta Kukumiku musika taldeak ere bere lekukotasuna ekarri zien.

Euskararen aldeko mezuak atseginekin jaso zituzten ikasleek. Albiste pozgarria jaso zuten, gainera, Olentzeroen bisitak alaituriko eguna guztiz biritu ziena. Izan ere, Urruñan eta

Ordizian duela hilabete bat iragan kantaldietatik bildu diruarekin kolegio berri baten eraikitzeko mentura azkartu dela azpimarratu zuen kolegioko lehendakariak.

Horrek haurren bozkario oihuak piztu zituen. Kantaldi haiek Urruñako Hazia elkarteak eta Goierriko ikastolek antolatutako zituzten Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde eta laguntza hori atzo goian izan zen kolegioan egin ziren adierazpenetan.

■ ■ ■ Mutilak ezker paretaren alde batean pilotariei begiratzen zieten artean, neskek mutxikoak dantzatu zituzten

Goierriko ikastolen elkartasuna

«Badirudi norbaitek norbaiti laguntzen diola», adierazi zuen laguntza horren gainean Xabier Albizu segurarrak. «Guk elkarri laguntzen diogu, zeren eta guztien artean eraikitzen baitugu Euskal Herria. Horretarako eskola behar dugu eta eskola hori ikastola da», gehitu zuen.

Ildo beretik jarraitu zuen bere jarduna Filipe Aramendi Hazia elkarteko kideak ere eta, besteak beste, «gure geroa gure eskutan hartzeko» deia zabaldu zuen.

Eneko Bidegain
ZIBURU

laburrean

■ Josu Jon Imazek Umeen Gabonetako Parkea inauguratu zuen atzo

OHIKOA denez aurten ere Umeen Gabonetako Parkea egongo da zabalik Bilboko Erakustazokan. Atzo izan zen inaugurazioa eta bertan Josu Jon Imaz izan zen, Eusko Jaurlaritzako Komertzio, Kontsumo eta Turismo sailburua. Parke honek izaera «hezitzailea eta kulturala» dituela nabarmendu zuen eta oso garrantzitsua dela etxeko txikien aisialdia modu egoki batean bideratzeko. Aurten parke honen gai nagusia milurtekoaren aldaketa da.

■ Bi lagun arma batekin BBVko sukurtsal batera sartu ziren atzo eta lapurretan egin zuten

ATZO goizeko 09:00tan aurpegia estalita zeramaten bi lagun Barakaldoko Nafarroa kalean dagoen BBVko sukurtsalera sartu ziren, eta arma labur batekin mehatxuak eginez lapurretan egin zuten. Ertzainek atzo ez zuten zehaztu zenbat diru lapurtzea lortu zuten. Dirudienaz lapurreta egiten ari ziren bitartean sesioa izan zen bi lapurren eta bezero baten artean, eta azken hori zauritu egin zuten. Zauri arinak baino ez zizkioten eragin.

■ Hamar milioi erabiliko ditu NUPek unibertsitateko hainbat ikerketa laguntzeko

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKO barruan ikerketa lanak egiten diharduten hainbat lagunek diru-laguntza jasoko dute unibertsitatearen partetik ikerketa horiekin aurrera jarraitzeko. Hain juxtu hamar milioi erabiliko ditu NUPek ikerlan horietarako. Gai arrunt ezberdinei buruzko ikerketa lanak dira.

■ Lapurren eskuetatik berreskuratutako hainbat artelan jaso zituen atzo Sebastianek

IRUÑEKO artzapezpiku Fernando Sebastianek Uxetik eta Vianatik lapurtutako hainbat artelan erligioso jaso zituen atzo Espainiako Gobernu-ko delegatu Francisco Javier Ansuategiren eskuetatik. Goardia Zibilak berreskuratuak dira artelan guztiak, iazko urtearen amaieran egindako ekintza batzuetan.